

## **TEKNOLOGIA IRISGARRIAK GARATZEKO IKERKETA PROIEKTUETARAKO II. LAGUNTZA DEIALDIA** **INDRA – UNIVERSIA FUNDAZIOA**

### ***Laguntzen ezaugarriak:***

Orotara 24.000 euroko hiru laguntza deitu dituzte teknologia irisgarriak berritu eta garatzeko proiektuetarako. Proiektuek helburu izan behar dute pertsona desgaituek erabil dezaketan edo pertsona desgaituentzat erabil daitekeen edozein produktu garatzea.

Desgaitasuna duten ikertzaileak partaide dituzten proiektuei emango zaie lehentasuna.

### ***Proiektuen ezaugarriak:***

Kanpoan geratuko dira:

- Desgaitasuna duten pertsonentzat berriaz ez diren proiektuak.
- Higiezinetan inbertsioa egitea (erostea, eraikitzea, zaharberritzea, eta abar) eskatzen duten azpiegitura proiektuak.
- Ekitaldi zehatz bat (biltzarra, jardunaldia edo mintegia) babesteko, hedatzeko edo antolatzeke proiektuak.
- Azterlan edo proiektu soziologikoak egiteko proposamenak.

Proiektuen iraupena 12 hilabetekoa izango da gehienez.

### ***Ikertaldeko kideek bete behar dituzten baldintzak:***

- a. Ikertzaile nagusiek harreman funtzionariala, estatutarioa edo kontratu bidezkoa izan behar dute UPV/EHUrekin eskaera aurkezten denetik proiektua gauzatzen den denbora osoan.
- b. Taldeko kideek harreman funtzionariala, estatutarioa edo kontratu bidezkoa izan behar dute UPV/EHUrekin eskaera aurkezten denean.
- c. UPV/EHUrekin loturarik ez duten ikertzaileek jatorrizko erakundearen baimena izan behar dute proiektuan parte hartzeko. Baimen hori [convocatorias.dgi@ehu.es](mailto:convocatorias.dgi@ehu.es) helbidera bidaliko da gainerako dokumentazioarekin batera.

**GARRANTZIZKOA:** Laguntza gauzatzen den bitartean UPV/EHUrekin duten harremana amaitzen zaien kideek **ezingo dute** gasturik egotzi egoera horrek dirauen bitartean. Ikertzaile nagusiaren ardura izango da laguntza gauzatzen den bitartean izaten diren bajen berri Ikerketaren arloko Errektoreordetzari ematea.

### ***Eskaerak aurkezteko modua eta epea:***

Ikertzaile nagusiek eskaerak aurkezteko epea **2017ko urriaren 27an, 14:00etan**, amaituko da.

Eskaerak honako plataformaren bidez aurkeztuko dira:

<http://www.tecnologiasaccesibles.com/concursoMMXVII>.

Izena emateko eredu [esteka](#) honetatik jaits daiteke.

### UPV/EHUko TRAMITEA:

<p>2017ko urriak 13 (egun hau barne)</p>	<p><b>Proposatutako langileen zerrendaren I. Eranskina bidaliko da Ikerketaren arloko Errektoreordetzak azter dezan.</b> Eranskina <a href="mailto:convocatorias.dgi@ehu.eus">convocatorias.dgi@ehu.eus</a> helbidera bidaliko da, mezuaren gaian "INDRA deialdia" jarrita.</p> <p>Dokumentu hori bidaltzea ezinbesteko baldintza izango da UPV/EHUren legezko ordezkariak eskaerari behin betiko onarpena emateko.</p>
<p>2017ko urriak 20 (egun hau barne)</p>	<p><b>"Erakundearen aurkezpena" agiria beteta bidaliko da</b> UPV/EHUren legezko ordezkariak sina dezan.</p> <p>Agiria <a href="mailto:convocatorias.dgi@ehu.eus">convocatorias.dgi@ehu.eus</a> helbidera bidaliko da, mezuaren gaian "INDRA deialdia" jarrita.</p> <p><u>Ezingo da bermatu epe barruan igorriko direnik data honen ondoren bidalitako agiriak.</u></p>
<p>2017ko urriak 27, 14:00ak</p>	<p><b>IKERTZAILEEK ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA AMAITUKO DA.</b></p> <p><u>Behin eskaera aurkeztuta, agiri guztien kopia <a href="mailto:convocatorias.dgi@ehu.eus">convocatorias.dgi@ehu.eus</a> helbidera bidaliko dira artxibatuta gera daitezen.</u></p>

### UPV/EHUren datuak:

Honakoak dira eskaera betetzeko beharrezkoak diren erakundeari (UPV/EHUri) buruzko datuak:

- **Legezko ordezkaria:** José Luis Martín González
- **Kargua:** Ikerketaren arloko errektoreordea
- **Erakundea:** Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea
- **IFK:** Q4818001B
- **Helbide soziala:** Sarriena auzoa, z/g
- **Posta kodea:** 48940
- **Hiria:** Leioa (Bizkaia)
- **Harremanetarako helbide elektronikoa:** [convocatorias.dgi@ehu.eus](mailto:convocatorias.dgi@ehu.eus)
- **Harremanetarako telefonoa:** 94 601 80 08

### Harremanetan jartzeko:

<p>IKERKETAREN ARLOKO ERREKTOREORDETZA</p>	<p>FECYT</p>
<p>94 601 80 08 <a href="mailto:convocatorias.dgi@ehu.eus">convocatorias.dgi@ehu.eus</a></p>	<p>91 480 50 00</p>

### Informazio gehiago:

<http://www.tecnologiasaccesibles.com/es/content/base-projects>